

## BIZILAGUN PROGRAMA

Bizilagun programa dela eta, etxebizitza hutsen jabeek VISESAren esku uzten dituzte etxebizitza huts horiek, eta ordainetan merkatuko errenta jasotzen dute hileko. Errenta zuzentasunez ordainduko zaiela eta kontratua amaitzean etxebizitza egoera onean itzuliko

dietela bermatzen die VISESAk etxebizitzaren jabeek; gainera, maizterrei dagokien kudeaketa guztiaz arduratzen da.

Halaber, VISESAk ETXEBIDEn (Etxebizitzako Euskal Zerbitzua) izena emanda dagoen pertsona edo bizikidetzaren baten esku utziko du etxebizitza hori, eta beren diru-sarreraren arabera alokairua ordainduko diote VISESAri.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak estaltzen du VISESAk etxebizitzari ordaintzen dion errentaren (merkatukoa) eta hark maizterrari kobratzen dionaren (gizarte-errenta) arteko aldea.

